Sin./Fdo.: CRISTINA SARDUY GAINZA - 2025-11-12
GENERO POLITIKETARAKO ETA DIBERTSITATERAKO IDAZKARI TEKNIKOA
SECRETARIO/A TÉCNICO/A DE POLÍTICAS DE GÉNERO Y DIVERSIDAD
Sin./Fdo.: TRINIDAD LOURDES VICENTE TORRADO - 2025-11-13
BERDINTASUNA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE IGUALDAD
Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTINEZ - 2025-11-13
ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD
Akordioa/Acuerdo: OF 06239/2025 - Data/Fecha: 2025-11-13
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2025-11-13

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuaren Foru Agindua, zeinaren bidez ematen baitzaio Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitateari zuzeneko dirulaguntza foral bat "Indarkeria Matxistak: sareko esku-hartzea" 2025-2026 masterra partez finantzatzeko eta hartan lankidetzan aritzeko.

Orden Foral de la Diputada Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia de Concesión de Subvención Foral Directa a la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea para la financiación parcial y colaboración en el máster en "Violencias Machistas: intervención en red", curso 2025-2026.

Bizkaiko Lurralde Historikoan, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eskumenen artean, hiru arlo horietan politika publikoak garatzea dago, Bizkaian inor alboraturik, baztertuta edo kanpoan gera ez dadin, eta, bereziki emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan, hezkidetzako, prebentzioko, maskulinotasun berriko, mikromatxismoak desagerrarazteko, ahalduntzeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktima direnei arreta emateko politikak planteatzea.

En el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia, entre las competencias del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia figura la de desarrollar políticas públicas en estas tres materias que logren que en Bizkaia ninguna persona quede relegada, discriminada o excluida y, específicamente, en materia de igualdad entre mujeres y hombres plantear políticas de coeducación, prevención, nueva masculinidad, erradicación de micromachismos, empoderamiento y atención a quienes son víctimas de violencia contra las mujeres.

Bestalde, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitateak honako eginkizun hauek ditu, besteak beste: zientziak, humanitateak eta teknika sortzea, garatzea, transmititzea eta kritikatzea; kulturaren, bizi-kalitatearen eta garapen ekonomikoaren zerbitzura dagoen ezagutza zabaltzea, transferitzea eta hari balioa ematea; ezagutza eta kultura zabaltzea unibertsitatearen hedapenaren eta etengabeko

Por su parte, la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, ostenta entre sus funciones la creación, desarrollo, transmisión, difusión y crítica de las ciencias, las humanidades y de la técnica; la difusión, la valorización y la transferencia del conocimiento al servicio de la cultura, de la calidad de vida y del desarrollo económico, la difusión del conocimiento y la cultura a través de la extensión universitaria y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: VYYP-FFHT-C6Y8-ETIS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

prestakuntzaren bidez; eta zientzia-trukea, mugikortasun akademikoa eta herrien garapenerako lankidetza bultzatzea. Horretarako, harremanak ezar ditzake beste erakunde batzuekin, bere helburu instituzionalak sustatu eta garatzeko.

formación continuada, así como favorecer el intercambio científico, la movilidad académica y la cooperación para el desarrollo de los pueblos, que podrán articularse mediante el establecimiento de relaciones con otras entidades para la promoción y desarrollo de sus fines institucionales.

Jarduera-eremu horretan kokatzen da, hain zuzen ere, “Indarkeria Matxistak: sareko esku-hartzea” 2025-2026 masterrari ematen zaion babesa, indarkeria matxistatik bizirik atera diren pertsonei zuzendutako berezko master bakarra Euskal Autonomia Erkidegoan, genero ikuspegia eta intersekzionalitatea txertatzen dituena

En este campo de actuación, se sitúa el apoyo al máster en “Violencias Machistas: intervención en red”, curso 2025-2026, único máster propio en la Comunidad Autónoma de Euskadi dirigido al acompañamiento a sobrevivientes de todas las expresiones de las violencias machistas, con perspectiva de género e interseccional.

Tituluaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoak master mailako unibertsitate-titulua izatea, eta, titulu horren bidez, profesionalak akreditatzea hizpide dugun gaian zuzenean esku hartzeko – bai indarkeria matxisten biktimei eta erasotzaileei arreta ematen espezializatu dauden eremuetako profesionalak bai eremu orokorretakoak (osasuna, hezkuntza eta beste batzuk)–.

El objetivo de la titulación es que la Comunidad Autónoma de Euskadi cuente con un Título Universitario de Máster en virtud del cual las personas profesionales —tanto de los ámbitos especializados en atención a víctimas de violencias machistas y agresores, así como de los ámbitos generalistas (salud, educación y otros)— puedan acreditarse para la intervención directa en la materia que nos ocupa.

UPV/EHUk bere gain hartu du derrigorrezkoak diren politika publikoak prestakuntzaren eremuan diseinatzeko eta ezartzeko ardura. Masterrak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eta ikasketa feministen eta generokoen arloan dagoeneko finkatuta duen graduondoko eskaintza osatu du.

La UPV/EHU asume su responsabilidad en el diseño e implementación de las obligadas políticas públicas en el ámbito de la formación. El máster complementa la ya consolidada oferta de postgrado de la Universidad en materia de igualdad de mujeres y hombres y de estudios feministas y de género.

Master horrek gizarteari egiten dion ekarpen nagusia da ikasleak indarkeria matxisten biktimekin esku hartzeko prestatzea eta egiaztatzea, emakumeen aurkako indarkeria tipologia guztiak ikuspegi teoriko-

La principal contribución que aporta este máster consiste en formar y acreditar al alumnado para la intervención con víctimas de violencias machistas: aborda todas las tipologías de violencia contra las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: VYYP-FFHT-C6Y8-ETIS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

praktikotik jorratzen.

Nahiz eta gizarteak eta erakundeek ahalegin handia egin, Arartekoaren "Jarrera matxistak Euskadiko nerabeen eta gazteen artean" izeneko azterlanak (2024) ohartarazten du kontzientzia soziala handiagoa bada ere, gazteek genero-estereotipoekin borrokan jarraitzen dutela. Txosten horretan adierazten da sexuaren araberako banaketa dagoela lanbideeta lan-ibilbideetan eta kirola jotzen dela genero-estereotipoak indar handiagoz agertzen diren eremutzat. Era berean, ikusten da desoreka dagoela etxeko lanen eta zaintza-lanen banaketan, eta presio sozial handiagoa jasaten dutela neskek erakargarritasun fisikoarekin lotuta.

Indarkeria matxistaren errealitateak indarkeriok desagerrarazteko legeria eta politika publikoak izatea eskatzen du. Horretarako, prestakuntza funtsezkoa da.

Ezinbestekoa da, beraz, prestakuntza areagotzea gazteen artean, eta eremu horretan, Unibertsitatea funtsezko eragilea da; horrez gain, prestakuntza espezializatua eman behar zaie eremu horretan jarduten duten profesionalei. Indarkeria matxistei buruzko master honek garrantzi handia duen eta arintzeko itxurarik ez duen arazo sozial bati erantzuna eman nahi dio.

Prestakuntza erdi-presentziala da, eta tituluaren gakoak honako hauek dira:

- "Egiten jakitean" oinarritutako metodologia sustatzen da, ezagutzaren transferentzia

mujeres, desde un enfoque teórico-práctico.

A pesar del esfuerzo social e institucional, el Estudio del Ararteko (2024): "Actitudes machistas entre la población adolescente y joven de Euskadi" alerta que, aunque ha aumentado la conciencia social las personas jóvenes siguen lidiando con estereotipos de género. En concreto, constata la segregación por sexo en los itinerarios profesionales y laborales, y la percepción del deporte como un ámbito donde los estereotipos de género se presentan con más fuerza. También se observa un desequilibrio en el reparto de tareas domésticas y de cuidados, y una presión social más marcada hacia las chicas en lo relativo al atractivo físico.

La realidad de la violencia machista demanda legislación y políticas públicas destinadas a su erradicación, y todas ellas reparan en el carácter fundamental de la formación.

La necesidad de una intensificación formativa en la población joven resulta, pues, indispensable y en ese ámbito la Universidad es un agente crucial, así como una formación especializada para las y los profesionales que operan en este ámbito. Este Máster en materia de violencias machistas pretende dar respuesta a un problema social de gran envergadura y que no muestra indicios de remitir.

Se trata de una formación impartida de forma semipresencial, y las claves de esta titulación son las siguientes:

- Promueve el "aprender a hacer" mediante la transferencia de saberes contando con un elenco

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: VYYP-FFHT-C6Y8-ETIS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

bultzatuz, indarkeria matxistatik bizirik irten direnei eta biktimarioei laguntzen aditu diren irakasleen eskutik.

- Intersekzionalitatea inplementatzen da bai edukietan, bai parte hartzean; izan ere, kolektibo babesgabeetako emakumeek parte hartzen dute irakasleen artean, kolektibo gutxituetako emakumeekin bitartekari diharduten erreferenteak.
- Indarkeria matxisten eta emakumeen gizarte bazterkeriaren arteko loturak sakonki aztertzen dira.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko taldeko esku-hartzea izateko trebatzen du, esku-hartze hori funtsezkoa baita loturak indartzeko eta sareak sortzeko.
- Gizonekin egiten den esku hartzea jorratzen da, era berritzailean, prebentzioaren ikuspegitik eta erasotzaileekin esku hartuta.
- Sailarteko koordinaziorako eskumenak bultzatzen dira, hainbat arlo eta profesional kontuan hartuta.
- Era berritzailean txertatzen du gorputzaren lanketa, jardun profesionala hobetzeko tresna gisa, esku hartze integrala bultzatzeko; eta emozioa, arrazoibidea, gorputza eta sexualitateak uztartzen ditu, behar-beharrezkoak baitira indarkeria matxistak jorratzeko orduan.

Bestalde, ikaskuntzaren emaitzak honako hauek dira:

de docentes especialistas en el acompañamiento a sobrevivientes y victimarios.

- Implementa la interseccionalidad tanto en los contenidos como con la participación de mujeres pertenecientes a colectivos vulnerables en el profesorado, referentes y mediadoras con mujeres de colectivos minoritarios.
- Profundiza en la relación que existe entre las violencias machistas y los procesos de exclusión de las mujeres.
- Capacita para la intervención socioeducativa grupal, esencial para la reparación de los vínculos y la creación de redes.
- Aborda, de forma novedosa y necesaria, la intervención con hombres desde el ámbito de la prevención y desde la intervención con quienes agreden.
- Favorece competencias para la coordinación interdepartamental, entre diferentes ámbitos y profesionales.
- Implementa, de forma innovadora, el trabajo corporal como herramienta para la mejora profesional para una intervención integral (emoción, razón, cuerpo y sexualidades, mirada necesaria para el abordaje de las violencias machistas).

Por su parte, los resultados de aprendizaje son los siguientes:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: VYYP-FFHT-C6Y8-ETIS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Indarkeria matxistei eta emakumeen gizarte-bazterketako prozesuei buruzko ikuskera zabal, integratu eta konplexua eraikitzea, ikuspegi erredukzionista ohikoenak gaindituz eta oinarriak ezarriz norberak lan egiten duen arlo profesionalean ongi funtsatutako erabakiak hartzeko.

- Indarkeria matxista eta gizarte-bazterketako egoeran dauden emakumeekin eta haurrekin esku-hartzeak antolatzeko orduan aurretiko genero-esperientziak duen eragina aztertzea, bai eta prebentzioa lantzeko gizonezkoekin ere.

- Bultzada ematea indarkeria matxisten aurreko esku-hartzea pertsonaren barruko, pertsonen arteko eta testuinguruaren araberako ikuspegietan oinarrituta egiteko.

- Oinarrizko gaitasunak eskuratzea laguntza integrala emateko, norberaren gorputzaz eta esperientzia sexuatuaz jabetuta, bizi-esperientziak norberarengan, harremanetan eta gizartean txertatzeko eta lantzeko.

- Jardun profesional informatua, eguneratua eta indarkeria matxisten problematika sozialari buruzko ezagutza zientifikoan oinarritua garatzea.

Jarduketa-esparru horretan kokatzen da, beraz, foru-erakunde honek emango duen laguntza ekonomikoa partez finantzatzeko “Indarkeria Matxistak: sareko esku-hartzea” 2025-2026 masterra.

- Construcción de una concepción amplia, integrada y compleja sobre las violencias machistas y los procesos de exclusión social de las mujeres, superando las visiones reduccionistas más habituales y sentando las bases para la toma de decisiones fundamentada en el ámbito profesional en el que trabajan.

- Análisis de la influencia que tiene la experiencia generalizada previa a la hora de plantear una intervención con mujeres e infancia en situación de violencias machistas y exclusión social, así como con varones para la prevención.

- Impulso para la consecución de un posicionamiento sobre las violencias machistas que facilite la intervención desde las perspectivas intrapersonal, interpersonal y contextual.

- Adquisición de competencias básicas para realizar un acompañamiento integral a través de la conciencia del propio cuerpo, su experiencia sexuada para la integración y elaboración de las experiencias vitales en su dimensión personal, relacional y social.

- Desarrollo una práctica profesional informada, actualizada y basada en el conocimiento científico de la problemática social de las violencias machistas.

En este marco de actuación se sitúa el apoyo económico de esta institución foral a la financiación parcial del máster en “Violencias Machistas: intervención en red”, curso 2025-2026.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: VYYP-FFHT-C6Y8-ETIS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko Foru Aldundiak titulu hori finantzatzen laguntzeko proposatzen duen zenbatekoa, zehazki, HAMAR MILA EURO (10.000 €) da, BEZik gabe.

El presupuesto de la colaboración propuesta desde la Diputación Foral de Bizkaia en la financiación del título señalado se ha concretado en el importe de DIEZ MIL EUROS (10.000 €) IVA excluido.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2c) artikuluaren arabera, "salbuespen modura, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuengatik, edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuengatik, deialdi publikoa egiteko eragozpenak daudeneko dirulaguntzak" zuzenean emateko aukera egongo da.

El artículo 20.2 c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por el que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, prevé la posibilidad de conceder de forma directa "con carácter excepcional, aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, y económico o humanitario u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública".

Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitateari emango zaio zuzeneko dirulaguntza, berak kudeatzen baitu "Indarkeria Matxistak: sareko esku-hartzea" 2025-2026 masterra.

La concesión de la subvención directa se realiza a la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (Q4818001B), que gestiona el máster en ""Violencias Machistas: intervención en red", curso 2025-2026.

Zuzeneko dirulaguntza bat ematea egoki lotzen zaio 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2 c) artikuluan ezartzen denari. Izan ere, aipatutako UPV/EHUko berezko tituluaren bitartez, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren funtsezko helburuetako bat bete nahi da, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko duen jarduketa-planaren barruan. Horrez gainera, masterrean emango den titulazioa berezia izango da, ikasleak indarkeria matxisten biktimekin esku hartzeko prestatu eta egiaztatuko dituelako.

La subvención directa tiene perfecta cabida en lo dispuesto en el mencionado artículo 20.2 c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, porque mediante la obtención del título propio de la UPV/EHU pretende darse cumplimiento a uno de los objetivos fundamentales del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad dentro de su plan de actuación para promover la Igualdad de Mujeres y Hombres, así como, por el carácter singular de la titulación a obtener, basada en formar y acreditar al alumnado para la intervención con víctimas de violencias machistas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: VYYP-FFHT-C6Y8-ETIS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Adierazitakotik ondorioztatzen da prestakuntza berezia dela, eta ohiko deialdi batean sartzeak bere izaera berezia ahulduko lukeela. Gainera, graduondokoa dela-eta aurreikusitako jarduerak ez dira ondo egokitzen emakume-elkarteen eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen berdintasun-proiektuak diruz laguntzeko Berdintasunerako Zuzendaritzak deitu ohi dituen dirulaguntzak arautzen dituzten foru-dekretuekin. Horretan oinarrituta, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak beharrezkotzat jotzen du dirulaguntza zuzenean ematea.

De lo señalado, se deduce que se trata de una formación única, cuya Cohesión en una convocatoria ordinaria desvirtuaría su naturaleza singular. Además, las actuaciones previstas no tienen un encaje adecuado en los decretos forales reguladores de subvenciones que la Dirección de Igualdad suele convocar para subvencionar proyectos de igualdad de asociaciones de mujeres y entidades sin ánimo de lucro. En base a ello, desde el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad se considera necesaria, la concesión de forma directa de esta subvención.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kontuan hartuta, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuari dagokio laguntza emateko eskumena, hala xedatzen baitu bere 12. artikuluko bigarren eta hirugarren zenbakietan 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onartzen baita 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua, 2014ko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren arabera (169/2014 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duena).

Habida cuenta de la cuantía de la subvención, es competente para su concesión la Ilma. Diputada Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad conforme a lo dispuesto en el artículo 12, apartados dos y tres del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, en relación con la disposición adicional segunda del Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.

Azaldutakoaren arabera, eta otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan (Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautespen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzkoa), ekainaren 6ko 60/2024 Foru Dekretuan (Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko

En virtud de lo expuesto y a tenor de las facultades conferidas en la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como en el Decreto Foral 60/2024, de 6 de junio, de la Diputación Foral de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: VYYP-FFHT-C6Y8-ETIS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onesten duena), eta haiekin bat datozen bestelako xedapenetan emandako ahalmenen arabera, honako hau:

Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad y demás disposiciones concordantes;

XEDATZEN DUT

RESUELVO

**Lehenengoa.**

Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitateari (Q4818001B) zuzeneko dirulaguntza bat ematea, HAMAR MILA EUROKOA (10.000 €), partez finantzatzeko prestakuntza-ekintza bat, “Indarkeria Matxistak: sareko esku-hartzea” 2025-2026 masterra izenekoa.

Dirulaguntza hori 2025eko ekitaldiko aurrekontuari egotziko zaio, aurrekontu-partida honetan: Organikoa (0905), Programa (232114), Ekonomikoa (45100) eta 2017/0064 proiektua.

Foru-agindu hau onartutakoan izapidetuko da dirulaguntzaren zenbatekoaren ordainketa.

Dirulaguntza eman eta jasotzeko, erakunde onuradunak nahitaez egiaztatu beharko du betetzen dituela bai bere zerga-betebeharrak bai Zuzenbide Publikoko zein Gizarte Segurantzarekikoak; halaber, adierazi beharko du ez dagoela sartuta foru dirulaguntzen onuradun izatea eragozten duen ezein egoeratan (egoera horiek 5/2005 Foru Arauaren 12.2 artikuluan daude ezarrita), eta ez dagoela Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako ekainaren 20ko

**Primera.**

Conceder una subvención directa a Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (Q4818001B) por importe cierto de DIEZ MIL EUROS (10.000 €), para la financiación parcial del desarrollo de la acción formativa, denominada máster en “Violencias Machistas: intervención en red”, curso 2025-2026.

Esta subvención se imputará en el presupuesto del ejercicio 2025 en la siguiente partida presupuestaria: Orgánico (0905), Programa (232114), Económico (45100) y proyecto 2017/0064.

El abono del importe de la subvención se tramitará tras la aprobación de la presente orden foral.

La concesión y el pago de la ayuda queda condicionada al cumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y frente a la Seguridad Social, así como a la manifestación de no encontrarse incursa en ninguna de las causas que, a tenor del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, le imposibilitaría adquirir la condición de beneficiaria de subvenciones forales y que no se halle incursa en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiaria recogidas en el artículo 42 de la Norma

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: VYYP-FFHT-C6Y8-ETIS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluaren arabera onuradun izateko ezarritako debekuetan.

Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Inguruabar horiek laguntza emateko orduan, eginbeharra onartzean eta ordaintzerakoan ere bete beharko ditu

Estas circunstancias deberán mantenerse en el momento de la concesión, del reconocimiento de la obligación y en el instante de efectuar el pago.

Dirulaguntzaren xede diren ekintza guztiak 2026ko irailaren 30ean baino lehen egin beharko dira.

Todas las acciones objeto de la subvención deberán ser realizadas con anterioridad al 30 de septiembre de 2026.

Bigarrena.

Segunda.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoarekin bat, dirulaguntza foral hau bateragarria izango da beste edozein administrazio, erakunde publiko nahiz pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, hargatik eragotzi gabe, halakorik jasoz gero, onuradunak nahitaez jakinarazi behar diola horren berri zuzenbidez onargarria den edozein bide erabiliz dirulaguntza hau eman dion erakundeari, ahalik eta arinen.

A los efectos del artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la presente subvención foral será compatible con otra u otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera otras administraciones, entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin que ello obste la obligación de la respectiva beneficiaria de comunicar por cualquier medio probatorio aceptable en Derecho tal subvención pública, de producirse, a la entidad concedente de la presente a la mayor brevedad posible.

Nolanahi ere, dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan (bera bakarrik edo beste dirulaguntza nahiz laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, eskatutako berezko finantzaketa barne) diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

En todo caso, el importe de la subvención, en ningún caso, podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia exigida, supere el coste de la actividad subvencionada.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: VYYP-FFHT-C6Y8-ETIS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Hirugarrena.

Dirulaguntza emateko aurrekontu-kreditua IV. kapituluko 45100 programako kreditu bat da («Transferentzia arruntak» kapitulukoa); beraz, funtsak ezin izango dira aplikatu kreditu horri egotz dakizkiokeen gastuei berez dagokien izaera eta helburua ez duten gastuetarako.

Dirulaguntza hau ematekok, aintzat hartu da 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluak diruz lagun daitezkeen gastuez ezartzen duen kontzeptua. Ondorio horietarako, dirulaguntza jaso dezaketen gastuak izango dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten diren gastuak. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuratze-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Laugarrena.

Dirulaguntza hau eman dela jakinarazten denetik hamar egun igaro eta gero, dirulaguntza onartutzat joko da, eta Berdintasun Zuzendaritza berehala hasiko da izapideak egiten Ogasun eta Finantzen Foru Sailarekin, dirulaguntza ordainketa bakar baten egin dadin; horretarako, ez zaio ezein bermerik eskatuko onuradunari, ez da-eta arriskurik ikusten hartutako betebeharrak bete ez daitezen.

Gastu-xedapena, betebeharraren aitortza eta dirulaguntzaren ordainketa egin aurretik, egiaztatuko da entitate onuraduna egunean dagoela zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekikoei

Tercera.

El crédito presupuestario que ampara la concesión es un crédito del capítulo 4 “Transferencias corrientes” del programa 45100 por lo que no podrán aplicarse los fondos a gastos de distinta naturaleza y finalidad a la que es propia de los gastos imputables a dicho crédito.

La concesión de la presente subvención se realiza atendiendo al concepto de gastos subvencionables que establece el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005. A estos efectos tienen la consideración de gastos subvencionables los que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso, el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

Cuarta.

Transcurridos diez días desde la notificación de la concesión de la presente subvención, esta se considerará aceptada e, inmediatamente, la Dirección de Igualdad procederá a tramitar su abono en un solo pago ante el Departamento de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a la beneficiaria por cuanto no se aprecia riesgo de incumplimiento de las obligaciones asumidas.

Previo a la disposición del gasto, al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que la entidad beneficiaria se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias y de seguridad social y que

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: VYYP-FFHT-C6Y8-ETIS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dagokienez, eta ez dela zordun itzulketa-ebazpen dela medio.

no es deudora por Resolución de procedencia de reintegro.

